

Euskal AEn ondasunen esportazioek % 7,9 egin zuten behera 2025eko irailean

2025eko lehen bederatzi hilabeteetan esportazioek % 3,6ko jaitsiera izan dute

Eustaten datuen arabera, 2025eko ekainean, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 7,9 egin zuten behera urte arteko tasari erreparatuta. 2.379,2 milioi euroko esportazioak izan ziren, aurreko urteko hil berean 2.582,8 milioi euro izan zirenean. *Produktu energetikoen* esportazioek % 64,2 egin zuten gora eta *ez-energetikoen* esportazioek % 10,8 egin zuten behera.

Hilabete honetan, merkataritza-saldoa positiboa da, 35 milioi euro ingurukoa, eta estaldura-tasa % 101,5ekoa da.

Lurralde historikoen artean, Araban izan da bilakaerarik negatiboen (-% 31,5), eta horrek Euskal AE osoko bilakaera baldintzatu du. Bizkaian esportazioak % 6,1 gehitu dira eta Gipuzkoan % 1,4.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Iraila 2025

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Iraila			Iraila		
	2024	2025	Gehikuntza (%)	2024	2025	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.582.838	2.379.197	-7,9	2.335.636	2.343.925	0,4
ENERGIAZKO GAIAK	101.050	165.895	64,2	515.543	520.112	0,9
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.481.789	2.213.302	-10,8	1.820.093	1.823.812	0,2
URTEKO METATUA	23.082.750	22.258.907	-3,6	20.393.695	20.038.453	-1,7
ENERGIAZKO GAIAK	1.604.866	961.268	-40,1	5.440.352	4.249.732	-21,9
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	21.477.883	21.297.639	-0,8	14.953.342	15.788.721	5,6
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	858.184	587.649	-31,5	576.052	515.937	-10,4
URTEKO METATUA	6.628.109	6.672.902	0,7	4.470.865	5.016.361	12,2
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	903.215	958.700	6,1	1.273.485	1.298.573	2,0
URTEKO METATUA	9.036.770	7.999.810	-11,5	11.880.403	10.776.830	-9,3
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	821.440	832.847	1,4	486.099	529.415	8,9
URTEKO METATUA	7.417.871	7.586.195	2,3	4.042.426	4.245.262	5,0

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2025eko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 0,4 egin zuten gora, eta 2.343,9 milioi eurokoak izan ziren. Inportazio *energetikoen* % 0,9 egin zuten gora eta *ez-energetikoen* % 0,2. Arabako inportazioak % 10,4 jaitsi dira; aitzitik, Bizkaikoak % 2,0 igo dira eta Gipuzkoakoak % 8,9.

Produktuen arabera (muga-zergen partidak)

Xehetasunetara jaitsita, ikusten da 969 **esportazio-partiden** sailkapenaren buruan “*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*” daudela, 170,1 milioi euro merkaturatuta eta % 21,8ko jaitsierarekin aurreko urteko hilabete beraren aldean; ondoren datoz “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (163,0 milioi euro eta % 50,5eko jaitsiera), “*Petrolioaren olio finduak*” (161,2 milioi euro esportatu eta % 315,9 gehiago), “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (72,0 milioi euro eta % 48,8 gutxiago) eta “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak*” bosgarren lekuan, 58,7 milioi euroekin, eta, kasu honetan, % 12,9ko jaitsiera. Bost partida horiek, irailean, merkaturatutako guztizkoaren % 26,3 dira, eta guztira 625,1 milioi euroko balioa dute.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.582.838	2.379.197	100,0	-7,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	217.500	170.097	7,1	-21,8
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	329.064	163.033	6,9	-50,5
Petrolioaren olio finduak	38.755	161.198	6,8	315,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	140.770	72.022	3,0	-48,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	67.400	58.732	2,5	-12,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	77.320	48.572	2,0	-37,2
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	26.037	47.359	2,0	81,9
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	47.073	42.059	1,8	-10,7
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	34.650	41.635	1,7	20,2
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	37.184	37.530	1,6	0,9
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	13.069	36.761	1,5	181,3
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	24.883	33.203	1,4	33,4
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	7.036	32.749	1,4	365,4
Igogailuak, eskalera mekanikoak, garraialgailuak, etab.	28.719	31.138	1,3	8,4
Burdina edo altzairuzko gainerako enbrazatutako	26.828	29.848	1,3	11,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	26.242	26.930	1,1	2,6
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbrazatutako moldeak batzuk	19.118	24.570	1,0	28,5
Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrazatutako.	15.757	21.688	0,9	37,6
Soja-olioa	5.111	21.310	0,9	316,9
Ardoa, mahats freskoarena	19.616	20.951	0,9	6,8
Metal arruntzko giltzarriak, sarraila, morroio eta giltzak	21.715	20.930	0,9	-3,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	20.521	20.403	0,9	-0,6
Zirkuitu elektrikoetako konektoreak, larkoak, entxufeak, lanpara-euskarriak... > 0 = 1.000 V tentsio baterako eta zuntz optikoen konektoreetarako	18.246	20.237	0,9	10,9
Burdinako edo altzairuzko beste tutu batzuk eta profil hutsak	19.588	19.529	0,8	-0,3
Beste enbrazatutako batzuk gogortu gabeko kautxu bulkanizatutakoak	16.353	19.227	0,8	17,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

25 partida garrantzitsuenen artean, honako partida hauen urte arteko hobekuntzak nabarmentzen dira: “*Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobinak*” (% 81,9), “*Hamar pertsona edo gehiago, gidaria barne, garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (% 181,3), “*Bidaiarien, ekipaje, posta eta abarren bagoiak trenbideetarako eta antzekoetarako*” (% 365,4) eta “*Soja-olioa*” (% 316,9).

Aurkako ildotik, aipagarria da, halaber, “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” partidaren jaitsiera, 48,6 milioi euro esportatu baitira, aurreko urtean baino 28,7 milioi gutxiago, hau da, % 37,2ko jaitsiera.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	858.184	587.649	100,0	-31,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	306.155	140.220	23,9	-54,2
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	140.441	71.190	12,1	-49,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	49.993	34.489	5,9	-31,0
Ardoa, mahats freskoarena	18.534	20.100	3,4	8,4
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	21.055	18.030	3,1	-14,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	50.469	17.604	3,0	-65,1
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	12.984	14.580	2,5	12,3
Hodiak eta hodian osagarriak [adibidez: loturak (erragailuak), ukondoak, zorroak], nikelezkoak	4.364	13.518	2,3	209,7
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	12.658	12.741	2,2	0,6
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	14.605	12.705	2,2	-13,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Arabak, esportazioen hiru partida nagusiek % 30etik gorako jaitsiera izan dute urte arteko datuei erreparatuta, eta “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (-% 54,2), “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (-% 49,3) eta “Ibilgailu automobilaren zatiak eta osagarriak” (-% 31,0) partidak nabarmentzen dira. “Kautxuzko pneumatiko berriak” partidaren jaitsiera (-% 65,1) eta “Hodiak eta hodi-osagarriak [adibidez: lotuneak (errakoreak), ukondoak, zorroak], nikelezkoak” partidaren igoera (% 209,7) ere nabarmendu behar dira.

Automobilgintzaren sektorean biltzen diren partidak, 283,6 milioi jaitsi dira, 547,0 milioi eurotik 263,5 milioi eurora, % 51,8 gutxiago, aurreko urteko irailaren aldean.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	903.215	958.700	100,0	6,1
Petrolioaren olio finduak	36.164	158.425	16,5	338,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	91.523	67.078	7,0	-26,7
Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	34.408	41.471	4,3	20,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	26.172	30.291	3,2	15,7
Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	17.240	26.883	2,8	55,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	28.249	25.546	2,7	-9,6
Soja-olioa	5.111	21.310	2,2	316,9
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	21.933	21.294	2,2	-2,9
Zirkuitu elektrikoetako konektoreak, larakoak, enbuxefak, lanpara-euskarriak... > o = 1.000 V tentsio baterako eta zuntz optikoen konektoreetarako	16.251	17.634	1,8	8,5
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	17.288	16.554	1,7	-4,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian, hamar partida nagusien artean, honako hauen esportazioen igoera nabarmendu behar da: *“Petrolioaren olio finduak”* (158,4 milioi euro esportatu dira, aurreko urtean baino 122,3 milioi gehiago, % 338,1eko igoera), *“Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobinak”*, 26,9 milioi euro esportatu dira, % 55,9 gehiago; eta *“Soja-olioa”*, 21,3 milioi euro esportatu dira, % 316,9 gehiago. Aitzitik, behera egin dute *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* partidako salmentek (67,1 milioi euro esportatu dira, aurreko urtean baino 24,4 milioi gutxiago, hau da, -% 26,7ko murrizketa).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	821.440	832.847	100,0	1,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	75.984	68.530	8,2	-9,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	65.001	55.628	6,7	-14,4
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobila	12.926	34.362	4,1	165,8
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	7.036	32.749	3,9	365,4
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	27.333	27.580	3,3	0,9
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	25.888	25.794	3,1	-0,4
Metal arruntezko giltzarripa, sarraila, morroilo eta giltzak	19.682	19.012	2,3	-3,4
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	17.758	18.208	2,2	2,5
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	6.745	18.195	2,2	169,8
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	15.036	17.389	2,1	15,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan, nabarmentzekoak dira partida hauetan izandako hobekuntzak: *“Hamar pertsona edo gehiago, gidaria barne, garraiatzeko ibilgailu automobila”* (% 165,8), 34,4 milioi euro esportatuta; *“Bidaiarien, ekipaje, posta eta abarren bagoiak trenbideetarako eta antzekoetarako”* (% 365,4), 32,7 milioi euro esportatuta; eta *“Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobinak”* (% 169,8), 18,2 milioi euro esportatuta. Aitzitik, salmentak jaitsi dira *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* (2024ko irailean baino 7,4 milioi euro gutxiago, -% 9,8) eta *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”* (55,6 milioi euro gutxiago esportatu dira, % 14,4 gutxiago) partidetan.

“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” partidako inportazioak % 49,7 igo dira eta “Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak” partidakoak % 55,6 jaitsi

Inportazioak muga-zergeren partiden arabera aztertuz gero, ikusten da hirugarren garrantzitsuenak, *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* partidak, guztizkoaren % 1,9 hartzen duenak, % 49,7ko hazkunde izan duela. Era berean, nabarmen egin du gora (% 143,5) *“Biodiesela eta haren nahasketak, petrolio-oliorik edo mineral bituminosozko oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukia dutenak”* (14,5 milioitik 35,3 milioira) eta *“Telefonoak eta ahotsa, irudia edo bestelako datuak transmititzeko edo jasotzeko gainerako gailuak”* (% 341,7). Aitzitik, nabarmen egin dute behera *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* (-% 55,6 eta 92,0 milioi eurotik 40,9 milioi eurora) eta *“Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak”* (-% 58,9, 64,7 milioi eurotik 26,6 milioi eurora) partidetak inportazioek.

Jatorri eta helmugako herrialdeak, 2025eko iraila

Hilabete honetan, esportatzaileen sailkapenaren lehen postuetan hauek daude:

- Frantzia:** gure Erkidegotik 366,4 milioi euroko balioa duten produktuak jaso ditu, % 186,0ko estaldura-tasarekin.
- Alemania:** 352,7 milioi euroko balioa duten ondasunak esportatu dira, % 108,6ko estaldura-tasarekin.
- Italia:** 163,3 milioi euroko balioa duten esportazioak egin dira, % 125,1eko estaldura-tasarekin.
- Erresuma Batua:** herrialde horretara 148,2 milioi euroko esportazioak bideratu dira, eta % 222,7ko estaldura-tasa lortu da.
- Herbehereak:** herrialde horretara zuzendutako salmentak 139,7 milioi eurokoak izan dira, % 109,2ko estaldura-tasarekin.

Bost herrialde horiek esportazio guztien % 49,2 hartzen dute; horietako lau EB27koak dira, eta erakunde horrek biltzen ditu esportazioen % 65,9.

Hilabete honetan, inportazio gehienak herrialde hauetatik etorri dira, ordena honetan: Alemaniatik 324,9 milioi euro, Frantziatik 197,0 milioi euro, Txinatik 190,9 milioi euro, Italiatik 130,6 milioi euro eta Herbehereetatik 128,0 milioi euro.

2025eko lehen bederatzi hilabeteetan, 2.220,4 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa erregistratu da, % 111,1eko estaldura-tasarekin

Lehenengo bederatzi hilabeteetan, eta Euskal AEko esportazioetarako, % 3,6ko jaitsiera hauteman da aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 823,8 milioi euro gutxiago izan dira. Esportazioen zenbatekoa, berriz, 22.258,9 milioikoa izan da aldi horretan.

Euskal AEn, Bizkaiko esportazioak dira handienak 7.999,8 milioi euroekin, eta gero datoz Gipuzkoakoak 7.586,2 milioi euroekin eta Arabakoak 6.672,9 milioi euroekin. Bizkaiko esportazioak % 11,5 jaitsi dira, eta Arabakoak eta Gipuzkoakoak, berriz, aurreko urtekoak baino % 0,7 eta % 2,3 handiagoak izan dira, hurrenez hurren.

Produktu mota aintzat hartuta, Euskal AE osoan “Produktu ez-energetikoak” izan ziren nagusi esportazioen kopuruan, 21.297,6 milioi euroekin, 2024ko lehen bederatzi hilabeteetan baino % 0,8 gutxiago. Jaitsiera txiki hori ez zen homogeneoa izan; izatez, Bizkaiko esportazio ez-energetikoek % 5,3ko jaitsiera izan zuten, eta Arabakoek eta Gipuzkoakoek aurreko urtekoak gainditu zituzten, % 0,6 eta % 2,3, hurrenez hurren. “Produktu energetikoen” esportazioek % 40,1eko beherakada izan dute urte artekoa alderatuta.

“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” partida da esportazioen liderra, 2.246,8 milioi euro merkaturatuta, eta % 21,0ko igoerarekin. 25 partida nagusien artean, esportazioen igoerarik handienak partida hauetan izan dira: “*Bidaiarien, ekipaje, posta eta abarren bagoiak trenbideetarako eta antzekoetarako*” (314,4 milioi euro esportatu eta % 109,5 gehiago); “*Burdinbide edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak*” (359,6 milioi euro esportatu eta % 78,0ko aldea) eta “*Soja-olioa*” (176,9 milioi euro esportatu eta aurreko urteko aldi berean baino 111,4 milioi euro gehiago).

Aitzitik, partida nagusietako hiru murriztu dira: “*Petrolioaren olio finduak*” (-% 22,5 eta 242,7 milioi euro gutxiago), “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (-% 32,0 eta 253,7 milioi euro gutxiago) eta “*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*” (-% 15,1 eta 268,0 milioi euro gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Iraila 2025

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	22.258.907
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.246.839
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.505.312
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.015.501
4	2710	Petrolioaren olio finduak	836.198
5	4011	Kaubuzko pneumatiko berriak	539.053
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	444.654
7	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	432.808
8	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	375.752
9	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	359.580
10	8411	Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbina, bere piezak eta osagaiak barne	353.578
11	8605	Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	314.399
12	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	305.559
13	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	294.859
14	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	275.474
15	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	256.538
16	9990	Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	220.772
17	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	217.673
18	8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	206.599
19	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	195.695
20	7308	Xaffen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	182.916
21	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	181.589
22	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	179.339
23	1507	Soja-olioa	176.907
24	8301	Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morrolio eta giltzak	175.836
25	8501	Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	173.224

(p)Behinbehinekoko datuak

Data 2025eko Azaroaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2025eko lehen bederatzi hilabete hauetako sailkapenaren arabera, Alemania da herri hartzaile nagusia, esportatutako guztiaren % 14,9 hartzen baitu, guztira 3.325,5 milioi eurekin. Oso hurbil dago Frantzia 3.296,1 milioi eurekin (guztizkoaren % 14,8). Atzetik datoz Erresuma Batua (1.445,9 milioi euro eta % 6,5), Italia (1.352,8 milioi euro eta % 6,1) eta Ameriketako Estatu Batuak (1.323,4 milioi euro eta % 5,9). Bost herrialde horien artean Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioen % 48,3 biltzen dute.


Euskal AE osoko inportazioen metatua 20.038,5 milioi eurora iritsi da. Urte arteko konparazioan, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 355,2 milioi euro eta % 1,7 gutxiago da. Izan ere, Bizkaian (10.776,8 milioi euro) % 9,3 gutxiago erosi da (-1.103,6 milioi). Aitzitik, Arabako eta Gipuzkoako inportazioek gora egin dute; Araban 545,5 milioi euro gehiago eta guztira 5.016,4 milioi euro, eta Gipuzkoan 202,8 milioi euro gehiago eta guztira 4.245,3 milioi euro.

“Produktu ez-energetikoen” inportazioak % 5,6 egin du gora, baina “Produktu energetikoen” inportazioak % 21,9 egin du behera.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 2.220,4 milioi euroko saldo positiboa izan du 2025eko urtariletik irailera bitartean, eta % 111,1eko estaldura-tasa izan du.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62